

Gipuzkoako Museoak

2008ko krisia eta krisialdi ondorengo planteamenduak

Egilea: Juan Ramón San Sebastián
Artearen Historia Gradua
2014-2015 ikasturtea
Tutorea: Iñaki Diaz Balerdi
Artearen Historia eta Musika Saila

Aurkibidea

1. Laburpena	3
2. Gipuzkoako museoak lehen sorkuntzetatik 2009ra arte:	4
3. 2008: Krisi baten eztanda	12
3.1. Krisiaren eragina Kulturari	12
4. Museoak: krisia krisiaren barnean. Planteamendu berriak	14
4.1. Espazio berrien konkistan:	14
4.2. Parte-hartzearen zabalkuntza: stakeholders, hiritarrak, profesionalak, elkarteak, unibertsitateak.	16
4.3. Modelo publikoa ala pribatua?	18
4.4. Museoen demokratizazioa: parte-hartzea eta dialogoa	20
4.5. Museoetako ekonomia berria: Crowdfunding edo mikromezenasgoa	22
5. Gipuzkoako Museoen kasua	24
5.1. Idoia Otegui: Topic museoko zuzendaria	24
5.2. Mertxe Urteaga: Oiasso museo erromatarreko zuzendaria	29
5.3. Lurdes Azpiazu: Zumalakarregi museoko koordinatzailea	34
6. Ondorioak: benchmarking, Euskal Hiria ,EMSIME, Gipuzkoako kostaldeko museoak, museo birtuala.....	37
7. Bibliografia eta web-grafia	41

1. Laburpena

Honako lan honek John Coppolak idatzitako *Never let a crisis go to waste*¹ artikulua hartzen du oinarri. Izan ere, John Coppola EEBBeko museoetako buruzko ezagutza sakona izanik krisiak museoak berritzera bultzatzen dituen fenomenoaz aztertzen du, fenomeno hori bereziki hiru pilareetan banatzen duelarik, batetik hezkuntzaren indartzea erabilera publiko moduan, bestetik teknologien garrantzia geroz eta handiagoa eta azkenik jendearen parte-hartzea. Horrela, John Coppolaren ideia hartuz Gipuzkoako museoen bilakaera eta 2008an, krisiaren ondorioz, izandako hausnarketa momentu batek ekarri ahal izan duen aldaketa aztertu nahi da, hiru pilare hauek zer influentzia izan duten aztertu nahirik, baina baita ere beste batzuk gehituz. Kontuan izan beharra dago John Coppolaren planteamendua EEBBko testuingurua hartzen duela oinarritzat, eta beraz, hori Gipuzkoako lurralde historikoan zehatz-mehatz aplikatzea oso zaila dela. Gainera ez dago oso zehaztua krisiak museoetan izandako eragina eta horregatik, museoen testuinguruko protagonistei eginiko elkarrizketez baliatu izan nahi da² honako lan honetarako. Hortaz ere, lan honetatik atera daitezkeen ondorioak oso azalekoak direla aipatu beharra dago, lan honek ezartzen dituen mugengatik atera daitezkeen emaitzak azaleko edo gainetiko adierazle moduan bakarrik har daitezkeelarik.

¹ COPPOLA, John (2013): "Never let a crisis go to waste", *Reinventando los museos* (Iñaki Arrieta, ed.), Bilbao, Euskal Herriko Unibertsitatea, orr. 27-41

² GRAL hau egiteko erabilitako elkarrizketen ondorioz GRAL honek Letren Fakultateak eskatzen dituen ezaugarri formalen gehienezko 60.000 karaktereak gainditzen ditu.

2. Gipuzkoako museoak lehen sorkuntzetatik 2009ra arte:

Atal honetan aipatu beharra dago lehenik eta behin Gipuzkoan ez dela museo ohitura bat sortuko XX. mendearen bigarren herenera arte. Hortaz, Europa eta Estatuko gainerako lurralde batzuekin alderatuz, eboluzio motela izango du, Europa mailan XVI. mendean hasi eta XVIII- XIX. mendetik aurrera izango duelarik benetako museo hazkuntza. Gipuzkoan, berriz, demokraziaren etorrerari itxaron beharko zaio gainerako lurraldeen erritmora egokitzeke, eta hori ere ez da gertatuko XX. mendeko 90. hamarkadara arte. 1990ean Euskal Autonomia Erkidegoan Euskal ondasun kulturalaren legea sortzean “museoen baby boom” bat emango da³. Hau da, 60. hamarkadako aldaketa ekonomikoarekin, “Espainiar mirari ekonomikoa” bezala ezagutzen denarekin, hori eta Frankismoaren irekiera txiki batekin, aldaketa kultural lotsati bat nabarmendu behar da, elkarte kulturalak sortuz adibidez, Tolosako CIT (Centro de Iniciativas Turisticas) moduan, zeinak beraien siglen atzean ekintza kulturalen nahi eta sorkuntza gordetzen zuten. Nahiz eta aldaketa ekonomikoa ezinbestekoa izan kulturaren eboluziorako, ez da planteatuko museoen sorkuntza behar sozial bat bezala demokraziaranzko aldaketa politikora arte eta lehen aipatu moduan, 90. hamarkada izango da, Espainiako lurralde gehienetan bezala, lurraldearen izaerarekin loturiko museoen sorkuntza nabari bat hasten denean. Horrela XXI. mendera iristerako, eta herrialdearen amaigabeko hazkuntza ekonomikoan sinetsiz, museoen errebindikazio bat emango da, Gipuzkoako herri eta bailara guztiek beren museoen errebindikazioak egingo dituztelarik. Horrela, museoak probintzia guztian zehar biderkatuko dira XXI. Mendeko lehen urteetan, inaugurazioak batak bestearekin elkartuz, eta urteko hiru eta baita lau museo inauguratzera iritsiz. Hauen gaiak ezberdinak, etnografikoak, historikoak, itsas gaiak, astronomia, industriarekin lotuak, artistikoak...

2008an Ameriketako piztutako krisi ekonomikoaren ondorioak nabarmentzen hasiko dira Espainiar estatuan, 2009an kolpatuz Euskal Autonomia Erkidegoa. Gipuzkoan eta EAEan krisiaren eragina kulturaren eta museoetan nabaria izango da, nahiz eta Espainiar Estatuaren gehiengoarekin alderatuz, Kontzertu ekonomikoak administrazioan ematen dion babesa eta probintziaren industrializazio maila nabarmenak kolpea gutxituko duen.

³ DÍAZ BALERDI, Iñaki(2010); *Archipiélagos imaginarios: Museos de la comunidad Autónoma del País Vasco*, Vitoria/Gasteiz, Eusko Jaurlaritza kultura saila

Hala ere, eta hein batean pribilegio egoera horri esker ere, 2009 eta 2012 bitartean, abiadura guztiz moteldu ondoren, museo gutxi batzuk sortzen jarraituko diren Gipuzkoan (Idiazabalgo gaztaren museoa adibidez), gehienbat aurreko urteetako konpromiso politikoen erantzun moduan har daitezkeenak. 2009. urtetik gaur egun arte Gipuzkoako museoek egoera guztiz aldatu dela esan daiteke, Mundu mailan, Europar mailan eta Estatu mailan gertatu den moduan. Museoak beren aurrekontuen beherakada itzela ikusi dute eta errekurtsio gutxiagoekin emaitza berak eskatu zaizkie, gainera, museoek kasuan krisi bikoitzaz hitz egin izan da museologiaren arlotik. Izan ere, museoek lehenagotik beraien barne krisia jasaten ari ziren, museoek birsorkuntza eta birmoldaketa krisia, krisi ekonomikoarekin museoek planteamendu berrien teoriak instituzio gorenara eman direlarik eta instituzio eta estatu ezberdinek museoek berrantolaketa eta birmoldaketa planak eta planteamenduak hasi dituztelarik, Portugaleko RPM (Portugaleko Museoek Sarea) kasua, edo Euskal Hiria urrunera joan gabe.

Gipuzkoako Museoen zerrenda⁴:

	Izena	Sorkuntza data	Jabetasuna
1	San Telmo Museoa	1902	Donostiako Udala
2	Victor Hugoren Etxea	1902	Kutxa Gizarte Ekintza-Oarsoaldea
3	Eibarko Armagintzaren museoa	1914	Eibarko Udala
4	Itsas Jauregia- Aquarium	1915	Gipuzkoako Ozeanografia Fundazioa
5	Zuloaga Museoa	1921	Pribatua
6	Mirandaola	1952	Lenbur Fundazioa
7	Planetarioa. IMK Pasaia	1968	Pasaiako itsas-arrantza Eskola
8	Beobide Museoa	1969	Pribatua
9	Gorrotxategi Gozogintzaren Museoa	1982	Pribatua
10	Urrelur, Fossil eta mineralen museoa	1987	Urretxuko Udala
11	Zumalakarregi museoa	1989	Gipuzkoako Foru Aldundia

⁴ *Plan de ordenación de museos del territorio histórico de Gipuzkoa*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Diciembre de 2009. Iturri honetan oinarrituz interpretazio zentroak ere kontuan hartu dira.

12	Untzi museoa	1991	Gipuzkoako Foru Aldundia
13	Donostiako elizbarrutiko museoa ⁵ (ITXIA)	1991	Donostiako Elizbarrutia
14	Igartubeiti baserri museoa	1992	Foru Aldundia
15	Zerain kultura Parkea	1993	Zeraingo Udala
16	Photomuseum	1993	Photomuseum Argazki Euskal Museoa Fundazioa
17	Burnibidearen Euskal Museoa	1994	Burnibidearen Euskal Museoa
18	Lizarusti parketxea	1994	Gipuzkoako Foru Aldundia
19	Erraizabal, Artzaintzaren Ekomuseoa	1996	Lenbur Fundazioa
20	Munduko tximeleten erakusketa iraunkorra	1996	Irungo Udala
21	Lenbur Lurralde Museumoa	1997	Lenbur Fundazioa
22	Pagoeta parke naturala: Iturraran baserria eta Agorregiko burdinola-errotak	1998	Gipuzkoako Partketxe Sarea Fundazioa- Gipuzkoako Foru Aldundia
23	Makina-erremintaren museoa	1998	Museo de Maquina-Herramienta Fundazioa
24	Ingurugiro etxea	1999	Eusko Jaurlaritzza

⁵ Gipuzkoako museoen atariak ematen duen informazioaren arabera museo hau itxi mantentzen da gaur egun.

25	Gatz Museoa	1999	Leintz-Gatzagako Udala
26	San Martin Ondaregune	1999	Azkoitiko Udala
27	Museum Rezola	2000	Pribatua
28	Chillida-Leku ⁶	2001	Chillida familia
29	Eureka! Zientzia Museoa.	2001	Kutxaren Gizarte-Ekintza Fundazioa
30	Plaiiaundi Parke Ekologikoko Ekoetxea Interpretazio Zentroa	2001	Eusko Jaurlaritza
31	Bentalekua Museoa	2001	Servicio Territorial de Puertos de Gipuzkoa
32	Soinuenea, Herri musikaren txokoa	2002	Soinuenea Fundazioa
33	Arte eta Historia Museoa Zarautz	2002	Zarauzko Udala
34	Ogiaren txokoa	2002	Lenbur Fundazioa
35	Zuraren Interpretazioa Zentroa	2003	Zegamako Udala
36	Fanderia errota	2003	Errenteriako Udala
37	Luberri, Interpretazio Geologikoko Zentroa	2003	Luberri, Oiartzungo ikusgune geologikoa fundazioa

⁶ Gaur egun itxia 2011. urtetik.

38	Ardixarra etxea. Erdi Aroko interpretazio-zentroa	2004	Segurako Udala
39	Itsasgela. Mater Ontzi- Museoa	2005	Itsas Gela Elkarte
40	D' Elikatuz Zentroa	2005	Ordiziako Udala
41	Beraundi museoa	2005	Servicio Territorial de Puertos de Gipuzkoa
42	Algorri Naturaren Interpretazio Zentroa	2005	Zumaiako Udala
43	Antonio Oteiza Museoa	2006	Azkoitiako Udala
44	Sagardoetxea	2006	Sagardun Partzuergoa
45	Arrikruz, Oñatiko kobak	2007	Oñatiko Udala
46	Nautilus, Interpretazio Geologiko Zentroa	2007	Mutrikuko Udala
47	Oiasso museo erromatarra	2007	Irungo Udala
48	Aikur - erle museoa	2007	Pribatua, Lenbur Fundazioaren lankidetzarekin
49	“Arkaka” Uraren Interpretazio Zentroa	2007	Gipuzkoako Foru Aldundia
50	Donostiako Hiri Museoa	2007	Donostiako Udala
51	Arditurriko meategien Interpretazio zentroa	2008	Oiartzungo Udala

52	Ekainberri	2008	Ekain Fundazioa
53	Topic. Nazioarteko Txotxongilo Zentroa	2009	Tolosako Udala
54	Real 100 museoa	2009	Real Sociedad de Fútbol S.A.D.
55	Herri Museoa -Larraul	2009	Larraulgo Udala
56	Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroa	2010	Elgetako Udala
57	Menchu Gal Museoa	2010	Iruneko Udala
58	Done Jakue bidearen interpretazio zentroa	2010	Orioko Udala
59	Barandiaran Museoa	2010	Ataungo Udala
60	Chillida Lantokia	2010	Lenbur Fundazioa
61	Arantzazuko Parketxea	2011	Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioa
62	Igartza monumentu multzoa	2011	Beasaingo Udala
63	Cristobal Balenciaga Museoa	2011	Balenciaga Fundazioa
64	Uliako interpretazio zentroa	2012	Donostiako Udala
65	Idiazabal gaztaren interpretazio zentroa	2012	Idiazabalgo Udala

66	Lili jauregia	2013	Ekain Fundazioa
67	Bergarako Errege Seminarioko Bildumak (Bergarako Errege Seminarioaren museoaren proiektua)	2015 ⁷	Bergarako Udala

⁷ 2015eko uztaierako aurreikusten da museo honen irekiera:Diario Vasco
<<http://www.diariovasco.com/alto-deba/201503/15/descubriendo-laboratorium-20150315013002-v.html>>
[Kontsulta, 2015eko apirilaren 29an]

3. 2008: Krisi baten eztanda

2008an AEBetan hasiko den eta mundu mailan eragina izango duen krisi ekonomiko batek eztanda egingo du. Espainiako kasuan, krisiaren eragin bikoitzaz hitz egin izan da. Izan ere, AEBetako krisiak Europan izan zituen eraginez gain, Espainian etxebizitza krisia sortu zen, biak 2008an eztanda eginik eta zerbitzu publikoen murrizketa latzak ekarriz kasu guztietan. Espainiar Estatuaren kasuan eraikuntzan oinarrituriko egitura ekonomiko baten dependentziak ekarri zuen aipatutako krisi bikoitza, izan ere, 2008an sektore honek krisi latza jasan zuen etxebizitza salmenten beherakadarekin. 1998 eta 2007 urteen bitartean etxebizitzaren inguruko espekulazioa sortu zen Espainian eta burbuilaren eztandaren aurrean 1.000.000 etxebizitza saldu gabe gelditu ziren. Honek sektorearen gainbehera eta lanpostu askoren galera ekarri zuen. Aldi berean urte horietan ematen ari ziren mailegu errazen aurrean jende asko lanpostu gabe etxebizitza ordaintzeko ezintasunean ikusi eta honek Espainiako finantza sektorea jipoitu zuen, maileguak emateari utziz eta hasieran aipatutako krisi bikoitza elikatuz.

Euskal Autonomia Erkidegora ere iritsi zen krisiaren eragina, baina eskualde honek eraikuntzaren sektorearekiko zuen menpekotasun txikiagoagatik, beranduago kolpatu zuen, zehazki 2009ra arte ez da langabeziaren gorakada nabarmen bat egongo. Hala ere, langabezia tasa gutxien igoko den probintzia, lehen urteetan behintzat, Gipuzkoa izango da, honek ere, nahiz eta murrizketak barne, inbertsio publikorako tarte bat izango duelarik lehen ataleko sarreran aipatu moduan, hori museo berrien sorkuntzen jarraipenean itzuli daitekeelarik, hauek beti ere, kopuruari dagokionez, murriztuak izango direlarik.

3.1. Krisiaren eragina Kulturaren

Krisiaren egoera berri honetan museoak errezeta berriak sukaldatzen hasiko dira, krisi ondorengo garaia deitu izan den garai berri honetara egokitu ahal izateko. Nahiz eta aurreko atalean azaldu moduan, krisiaren hasiera oso nabaria izan inork ez daki aurrekaririk izan ez duen krisi honek noiz arte iraungo duen, ekonomistek ere ezin dutelarik ziurtatu. Egoera honen aurrean, eta krisi garaia kontzeptuaren aurrean, honek krisiaren leherketa momentuari aipua egiten diolarik, krisi ondorengo garaia kontzeptua erabiltzen hasi da, honen iraupena kontuan hartzen duelarik eta aurretik izandako beste

krisi batzuk aztertuz erabiltzen hasi delarik⁸. Hortaz, esan daiteke krisialdi ondorengo kontzeptuaren erabilera ez dela bakarrik egokia, baizik eta beharrezkoa dela, egoera honen iraupena inork ez baitaki zehazki. Beraz, kontzeptuaren planteamendua beharrezkoa ikusi da, museoek testuinguru honetara egin beharreko egokitzapenak azaltzerakoan.

Krisialdi ondorengo garai honen ezaugarria eta krisiaren ondorio zuzena, Kulturen egingo den gastu publikoaren murrizketa izango da, orain arte ezagutu den ongizatearen gizartearen gainbehera ekarriz. Ikuspuntu ideologikoa hartuz gero, egoera honetara politika neoliberalak ekarri gaituztela esan daiteke. Horretaz gain, gizarteak zerbitzu publikoen gain eta honen zorpetze gaitasunean ezarri den pisua plantatzera eman du. Hortaz, eta museoaren alorrera joz, krisi honekin ere diru publikoak museoetan nondik norako papera izan behar duen planteatu da eta baliabide publikoenganako izan behar den dependentzia maila ere.

Horrek, krisi ondoko garai honetan museoek aldaketa ekonomiko berrietara (baliabide ekonomikoen murrizketa gehienbat) egokitu behar duten planteatzera eramanez, baina aldi berean, lehendik planteatzen ari ziren museoaren inguruko hainbat zalantza azaleratu ditu, hala nola, museoak gizarte barnean izan behar duen papera.

Krisiaren ildotik jarraiki, museoek krisiaren ondorio sozial eta ekonomikoen aurrean ikusle hutsak izaten jarraitu behar duten planteatzera eramanez. Gainera museoaren gestio mota zalantzan jarria izan da: publiko, pribatua edo bien arteko hibrido bat izan behar duen galdetzerara eramanez. Horretaz gain, Krisi ondorengo garai batean dagoen Ongizatearen gizarte batean museoak nola birformulatu dezaken bere funtzioa eta lekua planteatu izan da.

Hortaz, eta aurreko garaietako planteamenduek enfasi handiagoa hartuz, museoaren perfil berriaren bilaketa bat egin da, honek izan behar duen gestio mota, funtzioa, lekua, eztabaida soziala, bisitarien parte-hartze maila etab. bezalako ideiei erantzuna eman nahian. Beraz, aurreko urteetan indarra hartzen joan diren ideiak krisiarekin, ahalbidera daitezken ala ez seriozki planteatzera eman dira mundu mailan.

⁸ ARRIETA URTIZBEREA, Iñaki; *Reinventando los museos*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbao, 2013


4. Museoak: krisia krisiaren barnean. Planteamendu berriak

4.1. Espazio berrien konkistan:

Museoetan ohikoa izan da betidanik publikoak eta pribatuak diren espazioak bereiztea. Horrela bisitarientzat gehienetan publikoak izan ohi dira sarrera, denda, erakusketa iraunkorra, bat-bateko erakusketa eta ekintza espazio edo tailerrak besteak beste. Bestetik ezkutuan, nahiz eta beraien berri jakin, betidanik egon dira biltegia eta errestraurazio tailerrak. Azken hauen inguruko jakin-mina geroz eta handiagoa izanik, hauek bisitariei irekitzea planteatu izan da zenbait kasuetan. Baina, errestraurazio tailerrak eta biltegiak behar duten isolamendua dela eta, normalean, bisitariei ez irekitzea izaten da erabakia. Azken urteetako tendentziak museo publikoago eta parte-hartzaileago baten alde hitz egiten digu, edo behintzat museo irekidura baten tendentzia errebindikatzen duten hainbat idazle ditugu besteak beste, lehen aipaturiko John Coppola bera, baina baita Juan Carlos Rico⁹, honen planteamenduaren aukera zabalak aipagarriak iruditzen zaizkidalarik. Planteamendu honen arabera etorkizuneko museo berriek, eta betidanikoek ere, erakusketa ikustearekin batera posible izango litzateke tailerra eta biltegiak ikustea, bai modu isolatuan edo baita biak uztartua ere, erakusketaren zati bat bihurtuz. Ezinbestekoa da beti tailerrak eta biltegien isolamendua, hauetan lan egin ahal izateko, beraz, bisita fisikoa egitea oztopo bat da askotan, baina planteamendu honen arabera bisita fisikoa egin gabe bisita bisual bat egitea posible izango litzateke. Gainera, eta erakusketa espazioa eta tailerra batera jarri ezkerro, hauen arteko erlazio bat sortzeko aukera ematen du, bisitariak ideia osatuago bat izanik museo bisitatzerakoan, nahiz eta isolatua izateko aukera existitzen den ere. Hortaz hiru aukera planteatzen dira: biltegiak guztiz isolaturik egitea (nahiz eta bisitagarriak izan), biak uztarturik egotea edo biak batera bisitatzea, erakusketarekin batera biltegiak ikusiz. Inondik inora ez gara bisita fisiko batez hitz egiten ari, baizik eta bisual, hau da, beirate baten bidez eginikoa, adibidez. Biltegiak eta tailerrak bisitagarriak izateaz gain, museo tradizioaletan izandako ezaugarriak izaten jarraitu beharko lituzkete: kanpoko lanen

⁹ RICO, Juan Carlos; *La difícil supervivencia de los museos*, ediciones Trea S.L.,2003

etorrera kontuan hartu beharko du, biltegiaren azkartasuna eta efikazia eta erakusketa gelaren gertutasuna.



1. Irudia. Biltegien kokapen aukerak. Juan Carlos Ricoren planteamendua.

Ez da sortu, Gipuzkoa mailan, metodo hau zehazki jarraitzen duen museorik, baina egia da, azken urteetan sortutako museotan espazio hauek erakusteko behar batekin aurkitu direla. Horrela, lan honetako hurrengo atalean aipatuko diren bi museoetan espazio hauen berreskurapenaren aurrekari izan daitekeena fenomeno eman da azken urte hauetan. Batetik Irungo Oiasso museo Erromatarra dugu, non, bereziki bisitari gaztetxoenei museoa zer den eta nola funtzionatzen duen erakutsi nahian, bisitaren amaieran biltegiara bisita “berezi” bat egin izan zaien. Izan ere fisikoki bertan egotea ez da gomendagarriena (hortik berezia izatearena) baina arkitektonikoki guztiz estalia eta isolatua egonik museoak ematen duen aukera bakarra da. Bestetik Tolosako Topic txotxongiloen zentroa dugu, non, bisita hasi aurretik, ambigü izeneko espazio batetik

(gaur egun bat-bateko erakusketetarako erabilia) txotxongiloz beteriko erakusleiho moduko batekin aurkitzen garen. Daniel Freixas, museo honen arkitektoak, biltegia horrela irudikatu nahi izan zuen, museora sartu aurretik bisitariei gogoraraziz, museoan dauden hainbat txotxongiloez gain, beste hainbeste daudela beraiei begira eta distantzia batera jarritako biltegi horretan.



2. Irudia. Topic zentroko biltegiaren ikuspegia¹⁰

4.2. Parte-hartzearen zabalkuntza: stakeholders, hiritarrak, profesionalak, elkarteak, unibertsitateak.

Azken urteetan asko aipatu izan da museoak beste instituzio batzuekin izan beharreko hartu emanak. Bereziki azpimarragarria iruditzen zait, adibidez, unibertsitateekin ezartzen zaien lotura, izan ere, nahiz eta bi instituzio ezberdinez hitz egiten ari, biek helburu komun bat dute: ikerkuntza. Ikerkuntzak gero eta indar handiagoa du museoetan, baina ikerkuntzaren garapen indartsu bat emateko bi instituzioen elkar laguntza ezinbestekoa da, gainontzean, funtzio berdinak dituzten bi instituzio berdinen aurrean aurkituko ginateke.

Errealitatea hau baino konplexuago izanik errealitateak instituzio hauen ezeraginkortasunaz hitz egiten digu lan eta errekurtsu bikoiztuak, emaitza banatuak eta zatituak erakutsiz. Horretarako ezinbesteko pausua da bi instituzioen arteko barrera haustea. Inbestigazio teorikoaren arloan bakoitzak departamendu banatuak ditu, batetik


¹⁰ EUSKOMEDIA <<http://www.euskomedia.org/ImgsAuna/ee/ee002221.jpg>>

[Kontsulta, 2015eko maiatzaren 25ean]

unibertsitatean ikasketara orientaturik eta bestetik museoan objektu konkreturantz bideraturik, banaketa hau ulergarri bezala har daitekeelarik. Baina errekurtsioak aipatzerakoan, berriz, bakoitzak dokumentazio zentro bat duela ikusi ahal da eta alferrik errepikaturiko errekurtsioak ere. Dokumentazioa bateratua izan beharko luke, ahalegin, kostuak eta ekipamenduak bateratuz. Dokumentu, liburu, artxibo etab.en digitalizazio prozesua konplexua izanik, ez litzateke dena leku bateratu batean eduki beharko bi instituzioen eskura? Azken finean bi instituzioen elkarketak ez luke hauen eraginkortasuna handituko?

Museoaren beste akatsetako bat didaktikoki eskolaren luzapen moduan hartzea izan da, eskoletan irudietan ikusten dena, museoan fisikoki ikusiz. Baina museoaren papera bestelako izan beharko luke kasu askotan, aktibitateak tailerra, jokoak, txangoak etab.en bidez iritsaraziz jendeari museoeko edukia. Gainera ikasleen parte-hartzea eta hauen prestakuntza maila handituko luke.

Enpresen papera ere garrantzizkoa da etorkizuneko museo planteamendu baten ideia definitzerakoan. Izan ere, nahiz eta unibertsitatearen esperientzia ezinbestekoa izan museoetan, enpresa espezializatueta azpiegiturak ere aipagarriak dira. Hortaz, irakaskuntza unibertsitateari lotua egongo litzateke eta museoak berriz, biltegiei lotuak, erakusketengan duten loturagatik. Bien artean, eta espazio komun bat osatuz, inbestigazio integraturiko zentroa egongo litzateke, komunean dituzten funtzioak betetzeko espazioa izanik honako hau. Enpresen papera laborategi funtzioa izango litzateke, hauetan



3. Irudia. Instituzioen arteko lotura. Juan Carlos Ricoren planteamendua.

Badaude etorkizuneko museoak aurreikusterakoan boluntariotzak ere garrantzi handia izango duela edo beharko lukeela diotenak ere, ameriketako ereduari gertatzen den moduan¹¹. Egia da honako gai hau nahiko konfliktiboa dela eta ikuspuntu ezberdinetatik jorra daitekeela, hortaz, horren gai zabala izanik, perspektibetako bat aztertzea mugatuko gara, hau da, boluntariotzaren desaprobetxapena. Boluntariotza askotan ez dela kontuan hartzen esan ohi da eta tradizio handirik ez dagoela ez penintsulan ezta probintzia mailan ere. Puntu honetan interesgarria izan daiteke planteatzea boluntariotzaren berezko balioa ez kontuan izatearen akatsa. Museo askok ez dute kontuan hartzen boluntarioaren existentzia, diru truke lan egiten duten pertsonak kontuan harturik bakarrik, eta horretaz gain, boluntarioek lan egiten duten leku askotan hauen papera baztertua gelditzen da, prestakuntzarik eman gabe, publikorako lan egitera edo bisitarien zerbitzuetara bideratuz bakarrik. Boluntarioa, museoa eta gizartearen arteko harreman sendoa baten existentziaren baieztapena izan daiteke kasu guztian, eta beraz, honek instituzioarekin izan beharreko lotura askoz ere handiago izan beharko luke. Azken urteetan hirugarren adinekoen inguruko boluntariotza bultzatu da hainbat museoetan, adibidez Madrileko Reina Sofia Museoan, pertsona helduen egoerarekiko interesa azpimarratuz¹². Baina hala ere, eta hasieran aipatu moduan gai hau perspektiba eta sentsibilitate ezberdinetatik jorra daitekeen gai da, eta honi buruzko ikerketen falta nabarmenduz, aipu hutsean uztea besterik ezin daiteke oraingoz.

4.3. Modelo publikoa ala pribatua?

Atal honetan azken urteetan zalantzan jarri izan den eredu publikoaz gain geroz eta indar handiagoa hartzen ari diren eredu ekonomikoaren adibidea jarri nahi da. Krisi ekonomikoak, lehen aipatu moduan, museoaren finantziario iturriak planteatzera eramandu ditu. Orain arte museoak mantenduriko mezenasak orain (krisi ondorengo garaian) moderatuagoak dira, eta Europan, Ameriketara bezala krisiaren ondorioz museoaren zorpetze bat egon da, zeinak mozketak ekarri dituen bi kontinenteetako museoetan eta horrek museoaren (finantziario) estruktura birplanteatzea ekarri du. Bi kontinenteetako

¹¹ El sueño depolifilo <<https://elsuenedepolifilo.wordpress.com/2012/12/03/voluntariado-cultural-el-modelo-norteamericano/>> [Kontsulta, 2015eko ekinaren 1ean]

¹² REINA SOFIA MUSEOA <<http://www.museoreinasofia.es/actividades/voluntariado>> [Kontsulta 2015eko maiatzaren 25ean]

museoak bereizten dituen ezaugarrietako bat European, museoen tradizio publikoa oso finkatua dagoela da eta, EEBBetan berriz, museoen finantziazioaren %40a edo gehiago mezenas eta enpresen bidez lortzen dela¹³. Izan ere, 70. hamarkadatik aurrera EEBBetan aldaketa administratiboak planteatzen hasi ziren 1985ean Neil Cossons-ek museoen administrazio aldaketari buruzko hainbat entsegu idatzi zituen, enpresa pribatuaren parte-hartzearen ideiak indarra hartu zuelarik Ameriketako “new museology” delakoaren barnean. European, berriz, garai berean ematen ari ziren aldaketa konstituzionalen ondorioz izaera publikoan oinarritzen zen estruktura berrien sorkuntza ematen ari zen, horien artean museoak¹⁴. 90. Hamarkadan postindustrializazioaren eraginaren ondorioz museo europarrei beraien gestioan hobekuntzak eta eguneraketak egitera derrigortu zitzairen. Honek museoaren berregituraketa erradikala suposatu zuen. Aldaketa honen barruan museoaren ekonomia arloaren garapena nabarmendu daiteke *museoen ekonomia* diziplina ekarri zuelarik. Bertan museo kontsumo kultural moduan garrantzia hartu zuen eta hauen gestioak ere.

Beraz, museoen finantziazio iturriak beti izan dira buruhauste arrazoi bat, eta bereziki, Gipuzkoaren kasura itzuliz, aipatu beharra dago museoen finantziazio egoera bertan ez dela bestelakoa, kasuen gehiengoetan diru-iturri publikoen menpean gelditzen direlarik. Nahiz eta azken urteetan museo berrien kopuruaren gorakada handi bat izan, museoetako askok ezin diete mantendu gastuei aurre egin. Aipatu beharra dago museo baten finantziazio iturriak hiru instituzioetatik etor daitezkeela: publikoa, pribatua edo museoak berak aktibitateen bitartez sortutakoa. Aldi berean, hainbat errekurtsio ekonomiko izan ditzake museo batek, guk hemen lau zatitan sailkatuz: diru-laguntza publikoak, dohaintza eta legatuak, diru-sarrera propioak eta babesak. Geroz eta museo gutxiago daude finantziazio publiko bakar batetik mantentzen direnak, babes eta mezenasen bilaketa hazkuntza bat izan delarik azken urteetan eta geroz eta ohikoagoa bihurtuz errekurtsio finantziazioen dibertsifikazioaren ideia. 2008an emandako krisiaren ondorioz EEBBetako museoen plantamenduak indarra hartu du eta geroz eta museo gehiago dira finantziazio iturri pribatuaren alde jartzen direnak, baina kasu Europarrak

¹³ BERGERON, Yves; Los museos y la crisis. Tendencias en los museos norteamericanos , *Revista museo.es* , nº 5-6, Ministerio de Cultura: Subdirección General de Museos Estatales

¹⁴ GILBERT GONZALEZ, Luis Maria; *La gestión de museos: Análisis de las políticas museísticas en la Península Ibérica*

ere indar handia hartzen du bertan bi iturriak (publikoa eta pribatua) uztartzea planteatzen delarik.

Egoera horren adibidea, nazio mailako museo batean dugu, Prado museoa, hain zuzen ere. Museo honek 2011. urtean, Gobernuak 2010-2013rako bultzatu zuen austeritate planaren aurrean modelo amerikarrarekiko adostasunaren alde atera zen Miguel Zugaza, museoko zuzendaria¹⁵. Bestetik, eta Gipuzkoaren kasura itzuliz modelo Europarrak deritzonaren ideiak indar handia hartu du azken urteetan hainbat museotan, hau da, diru publikoa eta pribatua uztartzea. Horren adibide izan ditzakegu Tolosako Topic zentroa, zeinak besteak beste Inditex enpresaren babesa izan duen edo Zumalakarregi Museoa, zeinak Irizar enpresak babestua izan den.

4.4. Museoen demokratizazioa: parte-hartzea eta dialogoa

Lehen atalean aipatu moduan museoek hazkuntza ekarri duen elementuetako bat kulturaren demokratizazioa izan da, hau demokrazia politikoaren eskutik etorriko delarik Espainiara eta bertako probintzietara. Beraz, kulturaren demokratizazioarekin hau herritarrengan gerturatu nahiko da, baina baita herritarrak kulturara gerturatu eta bertan inplikatzeko hasiko dira. Horrela 80. hamarkada amaieran eta 90.aren hasieran eta, behin demokrazia kulturalaren oinarriak egokitzen hasiak, museoek ugaltze bat egongo da, museo hauek izaera globala galdu gabe, lekuko izaeran zentratzen hasiko direlarik¹⁶. Museo hauen gehiengoa titularitate publikokoa izango da, hau da, udaletxeetatik bultzatuko dira. Gainera garaian ematen ari zen museologia berria, zeinak museoek demokratizazioa zuen pilareetako bat eta subjektuaren eta objektuaren arteko harremanari garrantzia eman Espainiako demokrazia berrian pilare hau bereziki autonomietan hasiko da kontuan hartzen. Horrela Euskal Autonomia Erkidegoko 1990ko Kultur Ondarearen legean ondorengoa dio: “eten gabe gizartearen eta honen

¹⁵ Talentyart <<http://www.talentyart.com/actualidad-de-museos/los-museos-mas-cerca-del-modelo-americano>> [Kontsulta, 2015eko maiatzaren 20ean]

¹⁶ ROIGÉ VENTURA, Xavier/ARRIETA URRETA BIZKAIA, Iñaki; Construcción de identidades en los museos de Cataluña y País Vasco: entre lo local, nacional y global, Pasos, revista de turismo y patrimonio cultural, v.8,(nº4), 539-553orr, 2010

garapenaren zerbitzurako izanezko”¹⁷. Beraz, lege berrietan argi uzten da hiritarren zerbitzura dagoen instituzio bat dela. Gainera, zenbaitetan identitatearen eraikitzaile gisa funtzionatu behar duten instituziotzat izendatzen dira, Andaluziaren kasuan¹⁸ izan daitekeen moduan.

Museologia berriaren demokratizazio helburu horretan museoan dialogoa sortzea da helburu obra eta subjektuen artean. Harreman honetara iristea oso zaila ikusten da zenbaitetan, izan ere, askotan subjektuak berarekin doazen beste subjektu batzuegana bideratzen du harreman hori, edo kasu askotan ez du harreman bat espero museoarekin. Museoarekin harremana sortzeko zenbaitetan kolektiboen sentsazioak patrimonializatu behar dira, hau da, kaleko bizipen, ideia, esperientziak hausnarketa espazioetara eraman behar dira, museoetara. Horrela, Luis Maceira Ochoa-k hiru adibide argi jartzen dizkigu¹⁹: VIH-Sida-, emakumearen aurkako bortxakeria edo gazteen ikuspuntua abiapuntu duten esposizioak. Hiru hauek komunean duten gauza bat gizarteko talde batzuen esperientziak beste batzuegana gerturatzen dituzte. Bertan museoa baliabide bat bihurtzen da pertsona talde batzuen perspektiba eta ikuslearen artean harreman bat sortzeko, baita ondasunarekin ere. Hemen ez da museoarekin harremanetan jartzen, ohikoa den moduan diskurtso instituzionalizatu batekin, baizik eta debate espazio bat planteatzen digula, non esfera publikora garamatzan, kolektibo publiko baten perspektiba azaltzen digun eta publikoa diskusio sozial batera gehitzera animatzen duen. Prozesu komunikatibo hezkuntza-mailakoa eta politikoa bihurtzen da, non museoa ezinbesteko espazio eta bitarteko bihurtzen den.

¹⁷ EUSKO JAURLARITZA: 7/1990Euskal Kultur Ondasunari buruzko Legea, Vitoria-Gasteiz, 1990

¹⁸ ANDALUZIAKO JUNTA: 2/1984ko Andaluziako Museoen legea, Sevilla, 1984. Lehen artikulua honela dio: “A los efectos de la presente Ley, los museos son instituciones de carácter permanente, abiertas al público, orientadas al interés general de la comunidad, que recogen, adquieren, ordenan, conservan, estudian y exhiben de forma científica, didáctica y estética conjuntos de bienes, muebles de valor cultural, señaladamente testimonios de la actividad del hombre y su entorno natural, con fines de investigación, educación, disfrute y promoción científica y cultural”.

¹⁹ MACEIRA OCHOA, Luis (2008), Iñaki; “Los públicos y lo público. De mutismos, sorderas, y de diálogos sociales en museos y espacios patrimoniales”, *Participación ciudadana, patrimonio cultural y museos. Entre la teoría y la praxis*, (Iñaki Arrieta rd.), Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea. 39-60 orr

4.5. Museoetako ekonomia berria: Crowdfunding edo mikromezenasgoa

Duela denboraldi batetik hona finantziazio iturri kolektibo, mikromezenasgoa edo crowdfunding terminoak geroz eta entzunagoak egiten ari dira kulturaren arloan eta, nola ez, museoetan. Plataforma hauek normalean liburuen publikazioak, diskoen grabazioak edo film laburren finantziazioa kudeatu izan dituzte. Baina azken urteetan museoek ere baliabide hau kontuan hartzen hasi dira beraien ondarea errestituzioerakoan, esposizioak antolatzerakoan edo jabetze berriak egiterakoan. Crowdfunding-a azken urteetan izandako ekarpen publikoen jaitsieraren aurrean laguntza bat bezala ikusten da. Mezenasgoa garai berriei egokitzen joan da eta formula demokratikoak egokituz eta garapen teknologikoaren laguntzarekin ondorengo emaitza hauek eman ditu. 2008an krisia hasi zenetik eta sektore kulturala hondatu ondoren, museoek beraien finantziazio estrategia dibertsifikatu dute, crowdfunding-a hauen barruan sartzerantz iritsiz.

Egia da, Erresuma Batuan edo Frantzian finantziazio mota hau sustraituagoa dagoela eta normalean helburu konkretu baterako proposamen bat egitean datza, parte-hartzaile edo “mezenasei” saritu egiten zaielarik parte-hartzeagatik (museoko doako sarrerak emanez, inaugurazioetara gonbidatuz edo kontzertu berezietara adibidez). Dirudienez Espainian antzerako zerbait existitzen zen XIX. mendean egiten ziren harpidetze publikoen bidez, hiriko ornamentu ezberdinak eraikitzeke edo artelanak erosteko.

Pixkanaka zentzu honetan, lorpenak egiten doaz, nahiz eta oraindik bide asko egiteko dagoen, eta bereziki Katalunian da mota honetako ekintzen buru, agian esperientzia kultural berrien aurrean duen bere izaera irekiagatik. Horrela 2013an Pedralbesko monasteriorako crowdfunding bat jarri zen martxan, bere pintura gotikoak errestituzioerako. Bestetik MNAC (Museo Nacional de Arte de Cataluña)-ek ere errekurtsio bera erabili zuen Mariano Fortuny-ren *La plegaria* lana lortzeko, horretarako 45.000 € bildu zituztelarik. Baita crowdfunding erabiltzen ere Mataroko bapore bidez doan lokomotora errestituzioerako diruaren lorpena izan da Museo del Ferrocarril de Cataluña zuzendua.

Catedral de Santiago de Compostela Fundazioak ere crowdfunding sistema jarri zuen martxan bere katedraleko fatxadaren errestituzioaren zati bat ordaindu ahal izateko.

Baina agian denetik proiekturik deigarriena Hispania Nostra-k bideraturiko *Todos a una* web orriaren bidez egin duena izan daiteke, zeinak bertatik ondare historiko, kultural eta naturalarekin loturiko proiektuak bideratu nahi dituen, ez bakarrik errestituziorako, baizik eta kontserbazio, balorizazio, difusio, aktibitate arkeologiko, etnografiko edo antropologikorako etab. erako ere. Proiektu honen bitartez lortu du horrenbeste errebendikatutako Boadilla del Monte jauregiko oilategia errestituzitzeko behar ziren 50.550€ -ak 2014ean²⁰ Jakako Elizbarrutiko Museoak²¹ edo Isonako museoak²² ere baliabide hau erabiltzea erabaki izan dutelarik besteak beste. Mikromezenasgoa arrakastatsua izateko ere fiskalitate laguntzak eman behar direla aipatu behar da, zentzu honetan Espainiar gobernuak 2015 apirilean zabalkuntza bat iragarri zuelarik²³, finantziario mota honi bultzada bat emanez²⁴.

²⁰ HISPANIA NOSTRA <<http://todosaunacrowdfunding.es/>> [Kontsulta, 2015eko maiatzaren 22an]

²¹ JACA ELIZABARRUTIKO MUSEOA < <http://www.diocesisdejaca.org/index.php/museo-diocesano-de-jaca/47-actividades/1354-comienza-la-restauracion-de-la-virgen-de-lastiesas-bajas-crowdfunding>> [Kontsulta, 2015eko maiatzaren 20an]

²² Europa Press <<http://www.europapress.es/catalunya/noticia-museo-isona-baraja-crowdfunding-restaurar-cuello-dinosaurio-20150202163921.html>> [Kontsulta, 2015eko maiatzaren 20an]

²³ Revista de Arte< <http://www.revistadearte.com/2014/12/16/la-conferencia-sectorial-de-cultura-estudia-incentivos-para-el-micromecenazgo/>> [Kontsulta, 2015eko maiatzaren 22an]

²⁴ El País<http://economia.elpais.com/economia/2015/04/26/actualidad/1430075327_640737.html> [Kontsulta, 2015eko maiatzaren 22an]

5. Gipuzkoako Museoen kasua



Idoia Otegui

5.1. Idoia Otegui: Topic museoko zuzendaria:

1-Aldatu al da zure iritziz museo eredia krisi garaian?

Nire ustez museo eredia ez da aldatu, aldatu dena museoan egiten diren aktibitateak eta ematen diren zerbitzuak dira, gure kasuan behintzat. Baina museo eredia ez da aldatu nire ustez.

2-Nola izango litzateke zure iritziz museoaren gestio eredu berria bat?

Museoa inguratzen duen jendeari irekia egon behar du eta garaiei egokitu eta gehienbat niretzat nabarmena izan daitekeen museoa bere inguruan bere lekua duen museo bat da, museoak bere inguruarekin lotura handia izan behar du nire iritziz. Inguruko jendea inplikatzeko, jendearengan iristea, ez izatea museo huts bat. Museoaren sozializazioa deritzona.

3-Museoak berriz pentsatu behar al dira? Museoaren papera aldatu egin al da azken urteetan?

Nire ustez museoa hurbil gaitza den zerbait moduan ikustez utzi beharra dago, hor dagoen zerbait izango balitz moduan eta museora joatea zerbait aspergarria eta serioegia den zerbait moduan ikustez utzi behar dela. Museoak erakargarritasunen bat izan behar du jendea museora gerturatzeko, ez dizut esango ardo bat hartzera joaten dena moduan izan behar duenik, baina bai museoak bisitatzera ohitu behar dela eta itxia eta aspergarria den zerbait moduan ikustez utzi behar dela. Zentzu horretan nik uste dut museoak garaiari egokitzen ari direla, museografia erakargarriagoak egiten ari direla, ez bitrinetakoak moduan, eta urruna egiten dituenak modukoak, itxiak moduan. Zentzu horretan bai museoak garai berrietara egokitzen ari direla, baina ez bakarrik krisiagatik, baizik eta garaiak aldatzen ari direlako eta jendeari gehiago gerturatu behar garelako. Topic, ikuspuntu horretatik, horren adibide izan daiteke, museografia gertuago baten adibide gisa.

Zaila da galdera horri erantzutea, izan ere, gu krisiarekin jaio ginen eta orduan gu lehen momentutik gerrikoa estutu behar izan dugu, azkenean tristenak diren aukerak bilatzen bukatu behar izan dugu, hau da, aldi baterako esposizioen murrizketa. Nik ezin dizut erantzun nola aldatu diren, izan ere gu krisi garaian jaio ginen. Argi dagoena da museo askok, ez dut esango desagertu egin direnik, baina ez dituzte aldi baterako esposizioak egiten, bizirautea mugatzen dira, pena bat izanik, baina bueno.

4-Zein da edo izan beharko luke unibertsitateen papera museoetan? Zenbait espazio bateratu egon beharko lirateke?

Ba, ez dakit. Noski, nik pentsatzen dut unibertsitateak ahal duen heinean museo ezberdinekin lankidetzan lan egin behar duela, hala ere, hein batean egiten dutela beken bidez, praktiken bidez... pentsatzen dut egiten dutela, baina bai lantzen duten arloko museoekin elkartuago lan egin beharko luketela pentsatzen dut. Museoak ere lankidetzan handiagorekin lan egin beharko lukete unibertsitateekin.

Niretzat hori ezinbesteko zerbait izango litzateke (bigarren galderari erantzunez). Gertatzen dena gure arloa (Txotxongiloiei erreferentzia eginez) ez dago prestigiozko arlo bat bezala kontsideratua unibertsitateentzat, baina txotxongiloiei buruzko tesiak eta ikasketa konkretuak egon beharko liratekeela pentsatzen dut, ez baitago ikertua, jendeak ez duelarik ezagutzen. Unibertsitateak ireki egin beharko lirateke, baita gu ere beraiekin lankidetzak eginez, gu iristen ez garen leku horietara iris daitezkeen edo egiteko gaitasuna ez daukagun eta beraiek iris daitezkeen leku horiek landuz. Hori faltan botatzen dudana zerbait da, izan ere, beste herrialde unibertsitate batzuetan badaude txotxongiloak ikertzen dituzten departamenduak, nondik datozen, nora doazen...

5-Interneten eta sare sozialen garapena ikusiz, museo birtualak protagonismoa hartuko du museo fisiokoaren aurrean?

Nik ezetz pentsatzen dut, ez da gauza bera gauza bat birtualki ikustea edo "in situ" edo fisikoki ikustea. Nik pentsatzen dut mundu birtualak museoetara iristeko lagundu dezakeela, izan ere, nik Topic-eko bisita birtual bat egin dezaket, orduan Topic-era "in situ" etortzeko gogoak datozkit. Ez da gauza bera bisita birtual bat

egitea, guk web orrian daukagu, baina horrek ez duela publikoa kentzen pentsatzen dut, ez du protagonismoa kentzen, alderantziz, jendea etor dadin laguntzen dizu.

Baina egia da, mundu birtualak baino teknologia berriek eta komunikazio forma berriek denbora kentzen digutela, izan ere facebook, twitter...-arekin adi egon behar zara. Ematen du hori gaur egun beharrezkoa dela existitzeko, bertan egoteko. Lehen X denboran behin komunikatzen zenuena gaur egun azkenean egon behar duzu "existitu" ahal izateko, denbora guztian bertan egon behar duzu sare sozialetan, baina mundu birtualak ez digula eragiten pentsatzen dut.

6-Zure iritziz museoek pilareak (dokumentazio, kontserbazio, inbestigazio, difusioa) mantendu al daitezke oraingo krisi ondorengo garaian?

Ez, gainera zerbitzuen biziraupen zerbitzu bat ematen ari gara eta ez luke horrela izan beharko, bekak eman ahal beharko genituzke ikertzaileentzat edo kontserbaziorako, gutxi egin baitezakezu, izan ere, guregan zentzu horretan krisiak eragin handia izan du egiten duzuna delako eta hori guk ekintzak egiten ditugula, beste museo batzuek ez dituzularik entzuten, hau da, ez dituztela ekintzak egiten. Guk ekintzak egitea lortzen dugu, baina egia da ikerkuntzaren zati bat gelditua dugula, hau da, ezin dugu jarraitu, ez dago aurrekontua horretarako. Gure kasuan (oinarrizko beharrak) mantentzen dituzu, baina minimoetan. Noski egiten duzula, txotxongilo batek errestaurazioa behar duela ikusten baduzu, errestauratzaera ematen duzu, baina agian benetan beharrezkoa dela ikusten duzunean ematen duzu, agian besteetan itxaron badaiteke, ba itxaron egiten dugu krisia pasa arte. Ezin da ere fondo berrien ekarpenik egin, izan ere, ez dago baliabiderik eta zentzu honetan iruditzen zait momentu honetan guri oportunitate interesgarriak pasatzen ari zaizkigula debekatuak ditugulako.

7-Museoen arteko lotura (aktibitateak egitean adibidez) handitu egin al da krisia hasi zenetik?

Gu krisiarekin jaio gara, baino egia da, inauguratu genuenetik ekin geniola, bide natural bat izanik. Agian gure filosofiagatik erlazonaturik egotea komeni zaigu, sare bat egin badaiteke hobeto, izan ere, beti errentagarri egin dezakezu, agian ez ekonomikoki, baina bai esposizio garrantzitsuago bat eginez, adibidez Lisboako

museoarekin elkartuz edo Benedetto Robassio elkartearekin, hau da, nik uste dut beti izango dela ona gure arloko museoekin sare erlazio bat edukitzea. Probintzia barruan gure arloa nahiko konplexua da, baina egia da San Telomo-rekin, Aquarium-arekin... lankidetzan egon garela. Gu hor gaude edozein lankidetzat motarako, bai besteek gurekin edo guk besteekin, baina nik bai pentsatzen dudala badaudela museo batzuk pixka bat bigarren edo hirugarren mailako kontsideratzen gaituztenak, bai tamainagatik, bai gaiarengatik edo dena delakoagatik.

8-Zer iritzi daukazu Crowdfunding-ari buruz? bideragarria da?

Crowdfunding-a oso ondo dagoela deritzot. Museo batean erabil daiteke? Ba iritzi desberdinak daude. Zergatik ezingo genuke erabili? pentsatzen dut nik. Egia da guztiz kontrari dagoen jendea ere badagoela. Adibidez, momentu batean crowdfunding bat egiten saiatu nintzen esposizio baterako txotxongiloak lortzeko eta azkenean bertan behera utzi nuen, izan ere (Topic-eko) aholkularitza kontseiluaren barnean bazegoen, nola eskatuko duzu crowdfunding bat txotxongiloak lortzeko bilduman 1800 txotxongilo dituzula esaten badidazu, esaten zuena. Noski, hori egia da, 1800 txotxongilo ditugula, baina horrek ez du nahi esan ez zaizkigunik txotxongiloak falta, mundua izugarria baita eta leku guztietan daude txotxongiloak, ez ditugu munduko leku guztietakoak. Proba egitea izango litzateke. Egiterakotan irekia egingo nuke goteo.org eta horrelakoak moduan, sare sozialen bidez nahi duenak, laguntzeko interesatua dagoenak parte har dezan.

9-Irabazi helbururik ez duten Elkarteeikiko zure museoak duen lotura zein da?

Bai, gehienbat arlo sozialeko irabazi asmorik gabeko elkarteekin dugu erlazioa, Gaianditzen, Estatu mailako kantzerraren aurkako elkarteak...mota horretako elkarteekin, izan ere, gure kezketako bat da. Niri gustatuko litzaidaken gauzetako bat, museoak eta ez bakarrik museoak, baizik ekintzak ere irisgarriak izatea da. Ekintzak ere egiten ditugu beraiekin.

10-Modelo pribatua eta publikoa bateragarriak dira museo batean?

Museo batek, guztiok ditugun moduan babes publikoak izan ditzake edo bestela Dalí museoak zara milioika pertsona erakarriz edo oso zaila da museo batek diru-laguntza publiko gabe bizirautea. Bai, geroz eta beharrezkoagoak ikusten ditut diru-

laguntza pribatuak, gertatzen dena da hemen ez gaudela ohituak, hemen ez da adibidez EEBB-etan bezala, non, gurearen antzekoa den zentro bat dagoen eta diru-laguntza pribatuekin bizirauten den, baino noski, EEBB-etan diru-laguntzak egitera ohituak daude, gainera han mundu guztiak horrela funtzionatzen du. Eta enpresak inplikatu egiten dira. Ez da beharrezkoa hogeit hamar milioi euroekin inplikatzeko, mila dolarrekin inplika daitezke edo 10 dolarrekin, nahi dutenera arte, baina jendea inplikatu egiten da. Hemen dirua eskatzera joaten zara eta ez, ez jendeak ez, kulturarekin ez, kirola izango balitz bai, baina kultura ez da interesatzen, kultura ez da interesgarria babesleentzako.

11-Parte hartzea eta debate espazio berriak sortu beharko lirateke museoetan?

Bueno nik parte-hartze herritarra desiragarriena dela pentsatzen dut. Klub edo museoan lagunek ekarpenak egiten dituen zerbait da, sozializatzerako laguntzen dizun zerbait ere bai, eta hori garrantzitsua dela iruditzen zait niri, eta debate espazioak, ba museoaren arabera nabarmena den moduan. (debate sozialak planteatzeari buruz) Zergatik ez, ez dakit museoaren lana den debate politikoak eta gainerakoak faboratzea, baina museoa irekia egotea mota guztietako ekintzak egitera ondo dago, beti ere moralaren aurka talka egiten dutenak ez diren bitartean. (emakumeen rola gaia horren adibide izan daiteke). Nik pentsatzen dut mota honetako gauzak aldiriko esposizioen bidez egin daitezkeela eta, hain zuzen ere, debate, hitzaldiak edo dena delakoren bidez, gertatzen dena, museoaren arabera da hau, hemen emakumea txotxongilo munduan izan duen paperari buruz egin daiteke. Zer zentzu du Topic-ek emakumeak politikan eginiko lanari buruzko hitzaldi bat egitea? Txotxongiloaren munduan bai.

5.2. Mertxe Urteaga: Oiasso museo erromatarreko zuzendaria



Mertxe Urteaga

1-Aldatu al da zure iritziz museo eredua krisi garaian?

Nire laneko inguruak egon dira krisialdian, beti, beti ezagutu dut kulturarekiko krisi ekonomiko bat, inoiz ez da gure lanerako dirurik egon. Gertatzen dena da azkeneko lau edo hiru urteetan krisialdi horrek hartu dituela ia gure gizarteko esparru guztiak, baina nik ez dut sentitzen horrelako aldaketa handirik. BEZ -aren igoera adibidez bai, gauzak zailagoak jarri dira, baina beti zailak izan dira. Museoen krisialdi horretan jaio nintzen, nik ezagutu nuen eredua aldatzeko zegoen, ezin zen mantendu, bilduma jasotzeko zen eraikina, museoak urte askotan zehar izan duen funtzioa izan da hori, gauzak gordetzea. Nik oso garbi izan dut beti eredu hori aldatu behar zela. Gero beste museo motak egiten hasi ziren eta eredu horrekin lan egiten saiatu naiz. Igual gauza bera egiteko azken krisialdi honetan gertatu dena gauza bera egiteko lan bikoitza egin behar dela.

2-Nola izango litzateke zure iritziz museo en gestio eredu berria bat?

Kasu honetan hemen eredu berri bat gauzatu dugu. Alde batetik Oiassoren titularitatea Udalarena da eta gestioa bi talderen bidez gestionatzen da, batetik museo en gestioan lan egiten duen enpresa bat, K6 Kulturala eta , bestetik arkeologia mailan, Arkeolan, orduan bi horiek elkartu dira Oiassoren kudeaketa egiteko eta uste dut nahiko orekatua dagoela alde batetik zer den gestioa eta gero museo batek , nortasun arkeologiko bat duen museo batek, egin behar duena eta ikerkuntza maila mantentzea da, izan ere, edukiak eguneratuta egon behar dira, ez badago ikerkuntza bat ezin duzu diskurtsoa berritu, eta museo honek duen eredu berri honetan elkartzen dira bi eredu horiek, kudeaketa gordina eta kudeaketa akademikoa edo arkeologikoa, eta nire ustez eredu berri bat sortu dugu.

3-Museoak berriz pentsatu behar al dira? Museo en papera aldatu egin al da azken urteetan?

Museologia berria esamoldearen ostean dagoena kontuan izaten badugu, eredu berri bat sortu zuten ia 30 urte, orduan pixkanaka eredu horrek bere urratsak eman ditu eta gaur egun ere aldaketa baten aurrean gaude, orduan museoek eredu berri bat badute. Nire ustez argi gelditzen da gauza bat museo en helburu ez dela bildumak gordetzea eta

erakustea, baizik eta erronka bat duela inguruan duen gizartearekin bat egitea. Ikuspegi hori txertatu denean, honek museoaren eguneroko bultzatzen duen berrikuntza arloetan, dauden eskaera eta betebeharrak betetz. Uste dut abangoardiako proposamenak jasotzen ditugula eta horiek txertatzea posible dela App-en kasua adibidez. Benetan egokiak eta interesgarriak diren aldaketak. Uste dut eredu berri horren barnean eguneratzea dela txertatu behar den eguneroko kudeaketako prozedura. Gaur egun oso zaila da, izan ere eguneroko gauza berriak sortzen dira, baina gure lana hori da, gizarteari horrelako baliabideak eskaintzea, museoan ere bai.

4-Zein da edo izan beharko luke unibertsitateen papera museoetan? Zenbait espazio bateratu egon beharko lirateke?

Unibertsitateak aldatu behar du bere eredia. Unibertsitatea da aldatu behar duena. Unibertsitateak pentsatzen badu posible dela arkeologia edo historia ikasketetan orain duen eredia jai du. Unibertsitate berri bat behar dugu, benetan herriak dituen galdera eta kezken aurrean erantzunak eraikitzeko eta proposatzeko. Nik unibertsitateari eskatuko nioke kontutan izatea museoetan ere ikerketa galantak egiten direla, hezkuntzaren aldetik ere lan izugarria egiten duela eta museoekin harremanetan jartzeko zeren museoak izan daitezke unibertsitateko beste leiho bat. Unibertsitatea bere munduan bizi da eta ez ditu ahaleginak egiten bere esparrutik kanpo dauden beste erakundeekin. Badaude salbuespen batzuk, hori da nire ikuspen orokorra, adibidez museoaren kongresua, Uda ikastaroak...Nik eskatzen diot unibertsitateari protagonismo gehiago izateko.

5-Interneten eta sare sozialen garapena ikusiz, museo birtualak protagonismoa hartuko du museo fisiokoaren aurrean?

Nire ustez museo batek bildumak izan behar ditu, hori kudeatzeko tokia, baina baita ere sare sozialek sortutako baliabide horiek. Beste baliabide batzuk dira. Lehen orriak zeuden. Nire ustez kontuan hartu behar diren baliabideak dira eta modu normalizatuan erabili behar dira.

6-Zure iritziz museoaren pilareak (dokumentazio, kontserbazio, inbestigazio, difusioa) mantendu al daitezke oraingo krisi ondorengo garaian?

Bai eta mantentzen dira, behintzat museo honetan, igual lan bera egiteko lan bikoitza egin behar dela baina lan bera. Zerbitzu gehiago ematen ari gara jende gutxiagorekin eta ordutegi murriztuarekin.

7-Inbestigazioaren arloan aurrerapen pausoak eman ahal izan dituzue azken urte hauetan? Eta momentu honetan?

Ikerkuntza museoan txertatua dago, baina museotik kanpo egiten dira, Arkeolan fundazioan. Bai lortzen dugu emaitzak lortzea, adibidez meatzaritza munduan lan dezente egin da, orain hobeto ezagutzen dugu Ojassoren nortasunerako zer garrantzia izan zuen meatzaritzak, edo Atlantikoko eredia nola txertatzen den Ojasson, edo gauza interesgarriak sortzen ari dira 120.000 zati ikertu ondoren zeren azkeneko 20 urteetan eginiko indusketen artean zeramika izan da protagonismo handiena izan duen bilduma, kostatu zaigu hori sailkatzea eta orain lan horren emaitzak lantzen ari dira eta gauza bitxiak ikusten ari dira horren beste elementurekin jokatzen duzunean. Datu berriak barra-barra ateratzen ari dira.

8-Museoen arteko lotura (aktibitateak egitean adibidez) handitu egin al da krisia hasi zenetik?

Ez dakit krisiaren testuinguru barnean eman diren harreman berriak ala bere prozeduraren arabera izan den, baina adibidez Euskal Herriko kostaldeko museoaren sarea sortu da eta bertan Bizkaiko eta Gipuzkoako museoak daude eta oso sare interesgarria da sortu dena eta orain dela 3-4 urte sortu da. Adibidez Euskal Herriko museoaren sareko eguna sortu da eta ekainean antolatzen da, eta uste dut hirugarren urtea izango dela aurtengoa, uste dut modu normalizatuan joan garela harremanak eraikitzen. Baita ere, hori bai krisialdiak bultzatua, Bizkaiko museoak egiten dituen erakusketak hona ekartzen ditugu, askoz merkeagoak direlako eta guk Bizkaiko arkeologia museoari gure zinemaldiaren artxiboko pelikulak uzten dizkiegu. Hein batean krisiak behartu egin digu sareko lanak egiten.

9-Zer iritzi daukazu Crowdfounding-ari buruz? bideragarria da?

Ona. Egiten duguna izan da adibidez, crowdfunding eredu honen bidez, ez guk egin dugulako, erakunde batzuk modu horren bidez lortu dute dirua eta gero eskaini egin digute ekintza eta guk, nola ez, udaletxearen bidez onartu dugu eta eskaini dugu museoaren horrelako ekintzak egiteko. Museoak posible du horrelako ekintzak bultzatzea, baina

guretzako errazagoa da “actividades prioritarias” sistema erabiltzea, adibidez FICAB zinemaldiaren festibala aurrera ateratzeko babesleen dirua lortzea, errazagoa da zeren ekintza konkretu batekin joaten zara eta eskatzen duzu diru kopuru bat eta horren truke edo publizitatea edo zerbait....

10-Irabazi helbururik ez duten Elkarteekiko zure museoak duen lotura zein da?

Museo honen ADN barruan daude irabazi helbururik gabeko elkarteak, adibidez Arkeolan, zeren Arkeolan izan zen museo honen bultzatzaile nagusia, zeren museo hau ez da goitik behera sortu, baizik eta behetik gora eta ikerketa batzuen ondorioz eginiko aurkikuntza arkeologikoak izan ziren oinarria museo hau altxatzeko, beraz bere ADNan sartuta daude. Beste adibide bat, gure Erromatar garaiko festibala egiten dugunean horrelako elkarteetara jotzen dugu, Santiago kaleko bizilagunen elkarteak, edo orain antzerkia egiteko dugun proposamena edo Dies Oiassonis edo Navigium Isidis prozesio galanta egiteko horrelako elkarteak hurbiltzen dira. Guk egin behar duguna da josteta bat ea lortzen duguna da gu kaleratzea eta beraiek museora etortzea.

11-Modelo pribatua eta publikoa bateragarriak dira museo batean?

Oso zaila da babesleak bultzatzea. Adibidez EEBBetan duen eredua, oso bitxia da Kanadako zuzendariari hitz egiten diozunean beraiantzat diru iturri publikoak ez direla existitzen, izan ere iturri pribatuak dituzte, erabat pribatuak eta nola da hori izatea? badaude ogasunaren aldetik, fiskalitate aldetik abantaila izugarriak, orduan museo baten jartzen den diruak etekin fiskal izugarriak ditu, hortaz jendeari ez zaio inporta museo baten barruan dirua jartzea, izan ere horren tratamendu fiskala oso ona da eta ez diote diru hori ordaindu behar bere herriko ogasunari, hor dago eredua. Baina hemen planteatzen ari gara babesle pribatuak izatea baina etekin fiskalak sortu gabe, hori ez da posible, edo zeudenak joan dira gutxitzen, adibidez Gipuzkoako Foru Aldundiak zuen araudiak aldatu egin dira, lehen desgrabatzen zen dirua gutxitzeko, nola lortuko dugu enpresa batek dirua ematea ez badiogu ematen horrelako tratamendu bat. Nik ez dut esaten EEBBetako edo Kanadako eredura iritsi behar garela, baina behintzat ez izatea hain zurrak.

12-Parte hartzea eta debate espazio berriak sortu beharko lirateke museoetan?

Guk badugu urtero horrelako debate baterako espazio egoki bat, museoaren kongresua da, urtero hausnarketa sakon bat egiteko aukera bat, badaukagu ere Euskal kostaldeko

museoen sareko espazioa, eta beti ere kontaktuan gaude beste museoekin eta profesionalen aldetik ere harreman handiak daude. Gipuzkoako kasuan eta arkeologia museoan, azken finean Oiasso museo arkeologikoa da, Gipuzkoan dugun eza handiena da ez daukagula Gipuzkoako museo arkeologikoa eta debaterako espazioa baino gehiago behar dugu espazio bat ondo landua eta ez daukagu espazio bat ondo landua.

5.3. Lurdes Azpiazu: Zumalakarregi museoko koordinatzailea



Lurdes Azpiazu

1-Aldatu al da zure iritziz museo eredia krisi garaian?

Gure museo honetako proiektua aurrera eramaten da aurrekontu batekin (Aldundiak aukeratua) eta aurrekontu hori giza baliabide, mantenua eta jardueretan banatzen da. Hogeita sei urte hauetan aldaketa ugari izan dira, hasieran aurrekontu bat zegoen, aldatzen joan da, duela 9 urte %30eko beherapena egon zen aurrekontu orokorretan, hau jarduerari kentzen zaielarik. Lehen publikazioak, ikerketak, erakusketak ekoizten bagenituen, ordutik aurrera ondo pentsatuta lan egiten hasi ginen. Ikerketarako diru-laguntza bertan behera gelditu zen. Erakusketetan lankidetzaz bilatzen saiatu da azken urteetan beste museo eta erakundeekin. Eta krisi garaian, ez guk bakarrik, gehienok egiten duguna da sormena garatu, eta aurrekontu gutxienekin gauza bera egiten, (publiko desberdinentzako, ordutegi desberdinekin, eskaintza erakargarria eta zabala eginez) saiatzen da. Museorako 2012 izan zen mugarririk, geroztik aurrekontua gutxi gorabehera mantendu egin da, eta, egia esan, jardueretako diru gutxi egoten da eta saiatzen gara dirua lortzen, adibide Irizar, Udaletxea edo Orkli kooperatibaren bitartez.

2-Nola izango litzateke zure iritziz museoaren gestio eredu berria bat?

Nik usten dut ezin dela erabaki bat hartu orokorrean, ez da berdina, Aquarium, Eureka museo bat Donostian edo historia museo bat 1300 biztanle dituen herririk batean Gipuzkoa erdian. Erakunde publikoen menpe bizi izan gaitela, ba bai. Baina hain zaila da neurtzea. Oso museo gutxi daude autofinantziaz direnak. Azken urte hauetan museo inguruan museoaren dendari esparru handi bat ematen ari zaio dirua ateratzeko. Hemen jende kopurua berdina mantentzen da urtero, eta hori ere helburu bete da. Erakunde pribatuei diru gehiago eskatu behar zaiela? Ba agian bai eta zenbait eta gehiago estutu eramango digu jarduerara aberatsagoak egitera.

3-Museoak berriz pentsatu behar al dira? Museoaren papera aldatu egin al da azken urteetan?

Ba ez dakit zer esan. Nik uste dut gizarteak krisi garaian museotik aurrezten duela, besteak beste. Guk oso zaila daukagula iruditzen zait beti, ez bakarrik krisi garaian. Gu

beti burua nekatzen ari gara gauza erakargarriak egiten eta doan, jendea erakartzeko. Badago gazte talde bat 30-35 urte arteko gazteak erakartzean, agian ez dugu asmatu edo agian pentsatu behar dugu ez zaiela museoak interesatzen eta beste publiko desberdinei bideratu behar zaiela pentsatu behar dugu agian.

4-Zein da edo izan beharko luke unibertsitateen papera museoetan? Zenbait espazio bateratu egon beharko lirateke?

Niri gustatuko litzaidake hasiera hasieratik museo eta unibertsitatearen arteko lotura estuago izatea, eta nahiz eta talde-lana izan askotan ez gara adosten. Eta nahiz eta gaur egun zerbitzu bezala lan egiten dugun, erakundeetarako zerbitzu bezala, ikasle edo irakasle eta ikerlariak jasotzen ditugu, eta oso proiektu zehatzetarako lan egin dugu (unibertsitateekin). Ba bai niri iruditzen zait askoz lotuago egon beharko luketela, baina ez dago nire eskuetan.

5-Interneten eta sare sozialen garapena ikusiz, museo birtualak protagonismoa hartuko du museo fisiokoaren aurrean?

Gure apustua 2009an, krisi sakon hartan, hausnarketa baten ondorioz, lehen museoak kanpora irteten bazen museoaren berri jakiteko, hasi ginen pentsatzen museoan internet hor zegoela eta internetera saltoa egitera erabaki genuen, eta gure lana eta bilduma bertatik zabaltzeko lan handia egin dugu. Hemendik aurrera erakusketa birtualak egin ditugu, ikerketak egiteari utzi gabe, baina formatu ezberdina eman. 2009tik aurrera ere sortu genuen perfila sare sozial ezberdinetan (facebook, twitter, flickr) eta aurrez geroztik mantendu eta handitzen goaz. Saiatzen gara museo barnean egiten den lana sare sozialen bidez zabaltzea. Horiei esker ez dut uste bisitari kopurua handitu dugunik, agian momentu puntual batean jarduera baterako.

6-Zure iritziz museoaren pilareak (dokumentazio, kontserbazio, inbestigazio, difusioa) mantendu al daitezke oraingo krisi ondorengo garaian?

Bai, inongo zalantzarik gabe, ekipamendua antolatua dago eta oraingoz bai, inongo zalantzarik gabe.

7-Inbestigazioaren arloan aurrerapen pausoak eman ahal izan dituzue azken urte hauetan? Eta momentu honetan?

Bai noski, ez diogu ikertzeari utzi. Beti ikertu da eta ikerkuntza horien emaitzak formatu ezberdinetan eman izan dira (hitzaldiak, erakusketatan, katalogoetan, internet bidez).

8-Museoen arteko lotura (aktibitateak egitean adibidez) handitu egin al da krisia hasi zenetik?

Gipuzkoako museoen atarian denak gaude. Bakoitzak bere ezaugarriak ditu (pribatuak, publikoak, parke-etxeak), ba ez dakit eragina izan duen, nik pentsatzen dut ezetz.

9-Zer iritzi daukazu Crowdfunding-ari buruz? bideragarria da?

Hasierako ezohiko sistema bat izan zela iruditzen zait, eta oso ondo iruditzen zait. Badakit proiektu asko atera direla horiei esker, baina oso ideia ona dela iruditzen zait. Guk ez dugu inoiz erabili, baina behar bezala salduta gauza asko atera daitezke aurrera. Oraintxe bertan Albaola parte hartzen ari da bertan.

10-Irabazi helbururik ez duten Elkarteeetako zure museoak duen lotura zein da?

Oraintxe bertan pixka bat lantzen ari gara inklusibitatea eta horretarako ari gara bilerak egiten behar ezberdinak dituzten elkarteekin, proiektu ezberdinak egiteko. Proposamena bien artean landuta gero produktu bat edo eskaintza bat garatzeko. Gu gerturatu gara beraiengana jakiteko zer beharrak dituzten, zer nahiko luketen egitea guk haietzako eta beraien laguntzarekin proiektu ezberdinak aurrera eramateko asmoa daukagu.

11-Parte hartzea eta debate espazio berriak sortu beharko lirateke museoetan?

Nik uste dut baietz, museoaren helburuetako bat hori da, espiritu kritiko bat sortzea. Guk hitzaldia edo tertuliaren bidez eztabaida gunea sortzen ditugu.

6. Ondorioak: benchmarking, Euskal Hiria ,EMSIME, Gipuzkoako kostaldeko museoak, museo birtuala...

Ezinbestekoa da Gipuzkoako kultura eta museoen etorkizunaz hitz egiterakoan Euskal Hiria aipatzea. Euskal Hiria²⁵, Igor Calzadak 2011an garatutako ikerkuntza bat da, non berrikuntza Euskal eskualde honen erdigune moduan planteatzen den. Euskal Hiriaren pilareetako bat bere Hiri-eskualde izaera da, beste bat berrikuntza soziala da eta marka instituzionala hirugarrenik. Lurralde honetan Euskal autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Aldundia eta Iparralde, Diaspora eta cybereuskadi sartuko lirateke. Euskal Hiriak Sare kudeaketarekin koherentzian datorren planteamendu bat egiten du²⁶. Bertan, Portugaleko museo sarea edo Kataluniako artearen museo sarea hartzen ditu erreferentziazat. Honek analisi eta kolaborazioan oinarrituriko lan formak proposatzen ditu. Sareko Museoen kudeaketa izan daiteke etorkizunari begira egon daiteken organizazio motarik argiena, ondorengo ezaugarriak bilduz bere baitan:

- Politika publiko eta lurraldeko estrategiekin lotura izatea.
- Komunitate zibil, agente publiko eta pribatuekin elkarlotura izatea.
- Oinarri teknologikoa bere gestio eta ebaluaziorako.
- Artxibo/proiektuak sarean partekatuz eta ezagutzaren sareak sortuz.

Sarea da proiektu honen hitz gakoa, antolakuntza modua deskribatzen duelarik. Sare honek interes komun, gai komun edo modu berean lan egiten duten pertsona edo interesak elkartzen dituelarik .

Sarean lan egitearen adibide edo aurrerapausorik honena Emsime Euskal museoen sarea izango genuke. Hau, Euskadiko museoen jabetza publiko zein pribatuko ondasun kulturei buruzko informazioa eta irudiak jasotzen dituen dokumentuen kudeaketa sistema bat da. Aldi berea, eta 2006ko museoen legearekin bat eginez Euskadiko bilduma bateratu bat egitearen helburua islatzen du plataforma honek. Hala ere , nahiz


²⁵CALZADA, Igor eta BARANDIARAN, Carmele (2012): “¿Hacia una gestión de Museos en Red (MGMenRED)?: Postcrisis, *benchmarking* y Euskal Hiria”. VIII Congreso El futuro de los proyectos patrimoniales y Museísticos: innovaciones en tiempos de crisis, 18-19/Octubre/2012, UPV, Donostia-San Sebastián

²⁶ CALZADA MUJICA, Igor (2011); *¿Hacia una ciudad Vasca? Aproximación desde la innovación social*, Vitoria- Gasteiz, Eusko Jaurlaritza 185-192 orr.

eta urteak martxan daramatzan proiektu bat den EAE osatzen duten museo guztietatik 23 bakarrik daude sarean.

Aldi berean, Euskal kostaldeko museo en sare bat egituratu zen 2012an gai eta mota ezberdinetako museo en artean, hauen lotura beraien kokapena izanik. Honek aldi berean kostaldeko turismo kudeaketan du bere aurrekaria. Horrela, sare honen bitartez, kostaldean dauden museoak bisitatzera bultzatzen da, hauen arteko sare-harremanek ere aktibitate bateratuak egiteko aukera ematen dutelarik.

Hori guztiaz gain, eta hau Gipuzkoan oinarritua, *Geroztik* Gipuzkoako Historia museo birtuala aipatzekoa iruditzen zait, izan ere, etorkizun ez oso urrun batean museo en lan egiteko modua plasmitzen baitigu eta museoetan gordetzen den ondarea ulertzeko erreminta moduan balio baitu.



4. Irudia. Euskal Hiria Benchmarking-aren adibide (2011)

Azkenik, eta laburbilduz, esan dezakegu Coppolak EEBBetan eginiko hausnarketa horrek ere zenbait puntu komunean izan ditzakeela Gipuzkoako museoekin, izan ere aski argi gelditu da berak aipatzen dituen hiru pilareetan, azken urteetan izandako garapena, bereziki krisi hasi zenetik aurrera. Nahiz eta hezkuntza komunitatea eta

museoak saretzeko beharra agerian gelditu den, esan dezakegu aurre-pausu batzuk eman direla, horren adibide moduan har dezakegularik Euskal Herriko unibertsitateak eta Oiasso museoak duten lankidetzaz Udako ikastaroen bitartez. Gainera eta, bigarren pilareari aipua eginez, hau da, teknologiaren erabilerari, Topic museoak egin duen orrialdean eskegitako datu base eta bilaketa basea har dezakegu adibide moduan, sare sozialak ahaztu gabe. Hirugarrenik eta jendearen parte-hartze aktibo eta eraginkor moduan, aipagarria da Zumalakarregi museoak 2013tik izandako parte-hartzea (herritarrekin batera) Elegante egunean, ekintza honen bitartez herri guztia XIX. mendeko testuingurura gerturatu nahi delarik, bereziki modaren bidez, nahiz eta geroz eta esparru handiagoak hartzen ari den urteak igaro ahala.



5. Irudia. Elegante eguna Ormaiztegin



7.. Irudia. Uda ikastaroak Oiasso museoan



6. Irudia. Topic- zentroko web orria

Hortaz, ondoriozta daiteke, nahiz eta zenbait pausu eman diren azken urteetan oraindik lan handia gelditzen dela egiteko, bai museo eta bai instituzioetatik eta krisiaren eraginak, museoen garapena ez badu atzeratu ere, kasu askotan geldiune momentu bat sortu dela aipatzekoa da, zeinari esker bide berriak jorrazteko aukeraz baliatu izan diren. Hala eta guztiz ere krisiaz gain lan honetan landu ez den faktore garrantzitsu baten eragina aipatu beharra dago, XXI. mendeko gizartea eskatzen ari den aldaketak, eta aldaketa horiek museoetan edukitzen ari diren eraginak.

7. Bibliografía eta web-grafia

Bibliografía

- ARRIETA URTIZBEREA, Iñaki (2008): *Participación ciudadana, patrimonio cultural y museos. Entre la teoría y la praxis*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea,
- ARRIETA URTIZBEREA, Iñaki (2013): *Reinventando los museos*, Bilbao, Euskal Herriko Unibertsitatea
- CALZADA MUJIKA, Igor (2011); *¿Hacia una ciudad Vasca? Aproximación desde la innovación social*, Vitoria- Gasteiz, Eusko Jaurlaritza
- CALZADA, Igor eta BARANDIARAN, Carmele (2012): “¿Hacia una gestión de Museos en Red (MGMenRED)?: Postcrisis, benchmarking y Euskal Hiria”. VIII Congreso El futuro de los proyectos patrimoniales y Museísticos: innovaciones en tiempos de crisis, 18-19/Octubre/2012, UPV, Donostia-San Sebastián
- CARR, Raymond (2009): *España 1808-2008*; Madrid, Ariel
- DÍAZ BALERDI, Iñaki (2010): *Archipiélagos imaginarios: Museos de la comunidad Autónoma del País Vasco*; Vitoria/Gasteiz, Nerea eta Eusko Jaurlaritza kultura saila
- EUSKO JAURLARITZA(1995): *Museoak Euskadi, Museos*, Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritza
- EUSKO JAURLARITZA: 7/1990Euskal Kultur Ondasunari buruzko Legea, Vitoria-Gasteiz, 1990
- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA (2009): *Plan de ordenación de museos del territorio histórico de Gipuzkoa*, Gipuzkoako Foru Aldundia
- RAUSELL KÖSTER, Paul (2007): “Un museo. ¿Qué es desde la perspectiva económica y desde la lógica de acción pública?”. Seminario Internacional sobre Economía Inducida por los Museos, 22-23/ febrero/ 2007, Valencia, 25orr
- RICO, Juan Carlos (2003): *La difícil supervivencia de los museos*, Gijón, ediciones Trea S.L.
- RICO, Juan Carlos (2008): *La caja de cristal*, Gijón, ediciones Trea S.L
- ROIGÉ VENTURA, Xavier/ARRIETA URREBIZKAIA, Iñaki (2010): “Construcción de identidades en los museos de Cataluña y País Vasco: entre lo local, nacional y global”, *Pasos, revista de turismo y patrimonio cultural*, v.8, (nº4), 539-553orr.

-SADA, Asier y Javier(2008): *Historia de San Sebastián: De los orígenes a nuestros días*, Andoain, Txertoa

-VV.AA. (2012): *Los museos del País Vasco: complejidad y multiplicidad*, Revista HER&MUS, nº10 (zk. monografikoa)

Web-grafia:

Gipuzkoako museoak:

URL:<http://www.gipuzkoakomuseoak.net>

[Kontsulta, 2015eko maiatzaren 8an]

Turismo Euskadi:

URL:<http://turismoa.euskadi.eus/eu/museoak>

[Kontsulta, 2015eko apirilaren 25ean]

Diario Vasco:

URL:<http://www.diariovasco.com>

[Kontsulta 2015eko maiatzaren 19an]

Noticias de Gipuzkoa:

URL:<http://m.noticiasdegipuzkoa.com>

[Kontsulta 2015eko maiatzaren 22an]

El País

URL:http://elpais.com/diario/2004/08/22/paisvasco/1093203610_850215.html

[Kontsulta, 2015eko maiatzaren 22an]

Congreso de los diputados:

URL:http://www.congreso.es/docu/constituciones/1978/1978_cd.pdf

[Kontsulta, 2015eko maiatzaren 20an]

Kultur web:

URL:http://www.kulturweb.com/adm/ficha.asp?tipoficha=1&que=122&id=36355&L_Id=221&idioma=es

[Kontsulta, 2015eko maiatzaren 18an]

Gipuzkoako museo birtuala:

URL:<http://www.gipuzkoamuseobirtuala.net/>

[Kontsulta, 2015eko maiatzaren 29an]

Euskal kostaldearen museo sarea:

URL: <http://www.losmuseosdelacostavasca.com/acto-presentacion/?lang=EU>

[Kontsulta, 2015eko maiatzaren 29an]

Edumuseos:

URL: <http://edumuseos.blogspot.com.es/2009/11/el-voluntariado-como-forma-de.html>

[Kontsulta, 2015eko maiatzaren 28an]

Emsime:

URL:<https://www6.euskadi.net/r46->

[emsime/es/v09aNucleoWar/ciucEADestacados.do?idioma=1](https://www6.euskadi.net/r46-emsime/es/v09aNucleoWar/ciucEADestacados.do?idioma=1)

[Kontsulta, 2015eko maiatzaren 25an]

Universocrowdfunding:

URL:<http://www.universocrowdfunding.com/museos-democratizar-arte/>

[Kontsulta, 2015eko maiatzaren 22an]

Kolaboratzaileak:



